

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bilboko Udala****Hasieran onestea Mercabilbao, S.A.-ko Zerbitzua Emateko eta Funtzionatzeko Erregelamenduaren lehen aldaketa partziala (12. eta 22. artikulua) (2021-4135 espedientea).**

Udalbatzak 2021eko martxoaren 25ean egindako batzaraldian erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

«*Bat:* Hasieran onestea Mercabilbaoren Zerbitzua Emateko eta Funtzionatzeko Erregelamenduaren aldaketa partziala (12. eta 22. artikulua), 12. eta 22. artikuluen edukari eragiten diona, eta honela geratzen da hitzez hitz:

“12. artikulua: Mercabilbaok antolatuko du postu edo salmenta-puntu bat ustiatzeko prozedura. Administrazio Kontseiluari dagokio bi aldeek eskubideak eta betebeharrak biltzen dituzten kontratuak esleitzea, bai eta kontratuak indarrean dauden bitartean gerta daitezkeen egoera juridiko guztiak onartzea ere. Hala ere, ahalmen horiek Kontseiluaren lehendakariari eskuordetu ahal izango zaizkio. Kontratu horien iraupen-epea 10 urtekoa izango da, eta luzapen automatiko bat edo bi egin ahal izango dira, aldi berdinetan, gehienez ere 30 urtez, baldin eta kontratuaren ezaugarriak ez badira aldatu kontratuak irauten duen bitartean. Hala ere, indarraldia 2021eko abuztuaren 25ean amaitzen zaien administrazio-emakiden eta kontratuen kasuan, eta Mercabilbaoko hornidura-zerbitzua hartuko duen azpiegituraren behin betiko kokalekua abian jarri edo egungo kokalekua handitu arte, kontratuak zuzeneko esleipenez egingo dira, eta, hasieran, bost urteko iraupena izango dute. Kontratuak, iraungi baino lehen, gehienez ere beste bost urtez luzatu ahal izango dira, alderdiek hala adosten badute. Luzapena egin nahi duenak 15 egun lehenago jakinarazi beharko du. Hori guztia Administrazio Publikoen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legean ezarritako xedapenak kontuan hartuta.

Luzapen horren azken iraupena, nolanahi ere, etorkizuneko merkatua benetan martxan jartzen den dataren baldintzapean egongo da; data horretan galduko du indarraldia, nahiz eta luzapena epe luzeagorako adostu.

Postuaren edo salmenta-puntuaren erabilera eta ustiapen komertzialerako kontratua izaera juridiko-pribatukoa da, eta, beraz, zuzenbide pribatuko arauen mende geratzen da.

Mercabilbaok berariaz baimendu ezean, saltokia edo salmenta-postua ezin izango zaie azpierrentan eman, osorik edo zati batean, kanpoko hirugarren pertsoneri.”

“22. artikulua: Eskuragarri dauden lanpostuen eta lanpostu horietan interesa dutenen kopuruaren arabera, eta hautagaien kaudimen teknika eta ekonomika egiaztatu ondoren, indarrean dauden xedapenak baimendutako sistemen artean, zerbitzu publiko onenaren irizpideari gehien egokitzen zaiona erabiliko da postu horiek Mercabilbaon esleitzeko, eta, era berean, publikotasunaren, lehiaren, gardentasunaren, konfidentziasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak errespetatzen dituenak; halaber, zuzeneko esleipena egin ahal izango da Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legean aurreikusitako kasuetan.”

Bi: Jendaurrean jartzeko eta interesdunei entzuteko hogeita hamar (30) egun balioduneko epea irekitzea, iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Bilboko Udaleko iragar-ki-oholean, udal webgunean eta Mercabilbaoren webgunean jarrita, interesdunek egoki iritzitako alegazioak egin ahal izan ditzaten. Horretarako, espedientea eskuragarri izango dute Osasun eta Kontsumo Saileko bulegoetan —Zuzendariordetza Juridiko Administrazioa—, (Kristo kalea, 1).

Hiru: Aipatutako epea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da zenbatzen, eta bertan alegaziorik, erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztean



ez bada, Mercabilbaoko Zerbitzua Emateko eta Funtzionatzeko Erregelamendua partzialki aldatzeko Hasierako Onarpenaren Erabakia (12. eta 22. artikulua) behin betiko bihurtuko da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 49.c) artikuluekin bat etorrira, Udalbatzarreko Erregelamendu Organikoaren 90. artikuluari dagokionez.

Lau: Erabakiaren edukia Mercabilbao merkataritza-sozietatearen gerentziari jakinarazi behar zaio, horren berri izan dezan eta merkataritza-sozietatearen web-orrian sar dezan.»

Bilbon, 2021eko martxoaren 26an.—Osasun eta Kontsumo Saileko Zuzendariorde Juridiko Administratiboa, Marina Lizarralde